

Funtsezko elkarteak:

Alde batetik, enpresa hau martxan jartzeko lau bazkide garela aipatu behar dugu; Asier Ayo, Unai Akarregi, Gorka Uribe Echevarria eta Nuria Antolín. Lau bazkide hauek sortu egiten dute Cova- Inu enpresa.

Beste aldetik, gure produktuak eskaintzeko ezinbestekoak dira, ahal diren heinean, aliantza hoberenak edukitzea.

- Lehendabizi, edukiontzien hornitzaile batekin kontaktuan jarriko gara batuko ditugun zigarro-puntak bertan batzeko. Gure aburuz, eskaintza baita errentagarritasun hobereana eman diezazkigukeen erakundea [Recytrans](#) da. Haien web-orrian azaltzen duten moduan, hondakin ez arriskutsuen kudeaketaren arloan, Recytransek hondakin honi buruzko kudeaketaz, bilketaz



baita garraioaz ardura daiteke.

Orduan, haiek kontratatzea oso garrantzitsua da guretzako, produktua egiteko behar ditugun lehengaien kudeaketa baita tratamendua egin dezaketelako.

Ondoren, guk ekoiztuko genituzke soinu- xurgatzaileak beraiek zigarro-puntekin ekoiztutako lehengaia erabiliz.

Bestalde, gure produktuak zigarro-puntaz eginda egongo direnez, zigarro-puntak behar ditugu. Horretarako hainbat edukiontzi jarriko ditugu (Recytransi zuzenean alokatutakoak) pertsonak eta enpresek haien zigarro-puntak bertan botatzeko. Hiru modutara egin daiteke hau :



- Etxetik: Haien etxeetan zigarro-punten hondakinak ontzi hermetiko batean bilduko dituzte, gero kalean kokatuta egongo diren edukiontzietan bota ahal izateko.
- Erakundetik edo enpresatik: Gure planari harpidetuz gero, gure edukiontziak instalatuko ditugu eta Recytrans eskaintzen dituen garraio eta bilketa zerbitzua beraien enpresa edo erakundearen atera ailegatuko litzake. Horretarako udaletxearekin eta enpresa ezberdinekin akordioak sinatuko ziren.
- GKE edo Herritartasun elkarte batetik: Gobernu Kanpoko Erakundeekin edo herriko talde ezberdinekin kontaktuan jarriko ginateke hilabetean behin bai hondartzetan bai mendietan edota kaleetan zigarro- punten bilketa egiteko.